



INDARKERIAREN DESLEGITIMAZIOARI BURUZKO DOKUMENTAL ETA LABURMETRAIEN LEHIAKETA- ERAKUSKETA

LEHIAKETAREN OINARRIAK ETA BALDINTZAK

FERNANDO BUESA BLANCO FUNDAZIOAK indarkeriaren deslegitimazioari buruzko dokumental eta laburmetraien Estatuko lehen lehiaketa-erakusketa antolatu du.

1. HELBURUAK ETA GAIA

- Lehiaketa honen helburua da baloreak eta Giza Eskubideak sustatzea gazteen artean, horretarako baliatuz indarkeria kolektiboa agerian utziko duten eta berorren deslegitimazioari buruzko hausnarketa bultzatuko duten ikus-entzunezkoen sorkuntza. Osasunaren Munduko Erakundeak honela definitzen du indarkeria kolektiboa: beren burua talde bateko kideztat jotzen duten norbanakoek indarkeria modu instrumentalean erabiltzea helburu politiko, ekonomiko edo sozialak lortzeko. Definizio horren barnean sartzen dira terrorismoa, arraza suntsiketa eta suntsiketa ideologikoa, mafia sareak eta gazte bandak, besteak beste.
- Lehiaketako epaimahaiak bereziki baloratuko ditu indarkeria terroristaren adierazpen guztiak (kale borroka, estortsioa, mehatxuak, bahiketak eta atentatuak) deslegitimatzeko dituzten gidoietan oinarritutako dokumentalak.
- Era berean, ongi baloratuko dira biktimen lekukotasuna jasotzen duten lanak eta indarkeriaren erabilpen bidegabeak biktimengan izan dituen ondorioak islatzen dituztenak, bai eta lanen zentzu konstruktiboa, baikorra eta kritikoa.
- Ez da onartuko Fernando Buesa Fundazioaren ideia eta baloreen aurkako lanik.

2. ANTOLATZAILEA

- Fundación Fernando Buesa Blanco Fundazioa

3. PARTE-HARTZAILEAK

- Lehiaketa hau Espainiako Estatuan bizi diren eta ikus-entzunezkoen esparruarekiko interesa, ezagutza edota esperientzia duten 16 eta 32 urte bitarteko gazteentzat da (biak barne).
- Obrak indibidualki aurkeztu daitezke edo baita ere Ikus-entzunezko Fakultate edota Zinema Eskola baten izenean.

Calle Los Herrán nº 46 C-bajo • 01003 Vitoria-Gasteiz • Tfno.: 945 234 047 • Fax: 945 233 699

E-mail: centrodocumental@fundacionfernandobuesa.com • www.fundacionfernandobuesa.com



4. PARTE-HARTZE ARAUAK

- Parte-hartzaileek sorkuntza propioa eta lehenago editatu gabeko nahi adina obra aurkeztu ditzakete, zuri-beltzean edo koloretan, eta dokumentalak, fikziozkoak edo animaziozkoak izan daitezke, betiere Deialdian adierazitako gaiari buruzkoak badira eta iraupen hau badute:
 - Laburmetraia (gehienez 10 minutu)
 - Dokumentala (gehienez 10 minutu)
- Pelikula zinematografikoan, bideoan edo bideo formatu digitaletan (baita sakelako telefonoan ere) eginiko obrek parte hartu ahalko dute.
- Laburmetraiak edo dokumentalak Espainiako Estatuko edozein hizkuntza ofizialetan aurkeztu daitezke, gaztelaniazko azpigituluekin.
- Ongi baloratuko dira entzumen ezgaitasunak dauzkaten pertsonen erraztasunak ematen dizkieten obrak, esaterako, laburmetraietan edo dokumentaletan azpigituluak jartzen dituztenak.
- Ez dute lehiaketan parte hartuko enpresa komertzialek babestutako film edo bideoek, baldin eta beren edukiagatik enpresa horien publizitaterako tresna izan badaitezke.

5. IZEN-EMATEA

- Materialak 2011ko ekainaren 1etik azaroaren 30era bitartean jasoko dira, biak barne.
- Inskribatutako obren arduradunak material hau bidali beharko du:
 - **Izena emateko fitxa behar bezala beteta.** Dokumentu horrek zinpeko aitortzearen balioa hartzen du eta bertan idatzita dago sinatzaileak ezagutzen eta onartzen dituela OINARRIAK ETA BALDINTZAK.
 - **Obraren kopia bat DVD PAL formatuan,** idatziz adieraziz obraren izenburua, zuzendariaren izena eta iraupena.
 - **Obraren bi argazki.**
- Lanak posta zertifikatuz igorriko dira edo presentzialki entregatu helbide honetan:

**FERNANDO BUESA FUNDAZIOA
LABURMETRAIA ETA DOKUMENTALEN LEHIAKETA
LOS HERRÁN, 46 zk., C, BEHEA.
01003 GASTEIZ (ARABA)**

- Izena emateko fitxan datu garrantzitsuren bat falta bada edota DVDa, argazkiak dituen CDa edo eskatutako dokumentazioa ez bada aurkezten adierazitako epean, baliteke film hori lehiaketara ez onartzea.



- Eskatutako materiala igortzeko kostuak filma aurkezten duen pertsonaren kontura izango dira. Jaialdiak EZ ditu bere gain hartuko aurre-aukeraketarako kopiak bidaltzeko gastuak
- Ez da itzuliko aurre-aukeraketarako aurkeztutako materialik eta Fundazioko artxiboaren esku geratuko dira. Kontu handiz gordeko dira xede dibulгатiboekin kontsultatzeke eta erabiltzeko.

6. AUKERAKETA ETA SARIAK

- Epaimahai kualifikatu bat osatuko da Fernando Buesa Fundazioko kideekin, Jaialdiak lantzen duen gaiaren inguruko adituekin eta zinema alorreko adituekin. Epaimahaiak, irizpide tekniko eta humanoak erabiliz, hiru obra finalista aukeratuko ditu eta sari hauek emango dizkie hurrenez hurren:

LEHEN SARIA: 1 500 euro

BIGARREN SARIA: 1 000 euro

HIRUGARREN SARIA: 500 euro

- Epaimahaiaren ebazpena apelaezina izango da eta eskubidea du lehiaketako sariren bat eman gabe uzteko.

7. HEDAPEN PUBLIKOA

- Aurreikuspenen arabera, sari-banaketa ekitaldia 2012. urtearen hasieran izango da eta bertan proiektatuko dira obra finalistak eta irabazleak. Gainera hitzaldi-eztabaida bat egingo da bertaratutakoekin eta aurkeztutako dokumentalen arduradunekin.
- Lehiaketa amaitu ostean, Fernando Buesa Fundazioak eskubidea izango du aukeratutako obren ustiapen eskubideak erabiltzeko eta, beraz, Fundazioak antolatutako edozein jarduera akademiko edo kulturaletan proiektatzeko, baina horrek ez du sortuko obren autoreentzako diru-sarrerarik.

LEHIAKETAN IZENA EMATEN DUENAK OINARRI HAUEK ONARTZEN DITU ETA BAITA ERE ANTOLATZAILEEK OINARRI HAUETAN AURREIKUSI EZ DUTEN ZIRKUNSTANTZIA ORO.